# munduak guztiontzat beharko luke

## EUSKAL HERRIKO DOWN SINDROMEAREN ETA BESTELAKO ADIMEN URRITASUNEN FUNDAZIOA

Egun zoragarria bizikletan ibiltzeko. Kostata, baina azkenean Ane Piratak konbentzitu du Patakon buelta bat ematera joateko.







BARKATU BIKOTE. PATAKON OSO BALDAR DABIL ETA BIDEGORRI OSOA BEHAR DU BERETZAT.
LASAI. EZ DUGU INORAKO PRESARIK. OLAIA ERE IKASTEN ARI DA BIZIKLETAN IBILTZEN.


PATAKONEKIN PAZIENTZIA GALANTA IZAN BEHAR DA! URTEAK DARAMATZA BIZIKLETAN IBILTZEN IKASI EZINDA!
LASAI HARTU, NESKA. BAKOITZAK GURE ERRITMORA ETA MODURA IKASTEN DITUGU GAUZAK.


NIRI BESTEEI BAINO GEHIXEAGO KOSTATZEN ZAIT GAUZA BATZUK IKASTEA.
HORIXE BERA PASATZEN ZAIT NIRI!


BATZUETAN ANEK EZ DU ULERTZEN NI BERA BAINO MAKALAGOA ETA BALDARRAGOA IZATEA.
NI ERE EZ NAUTE BETI ULERTZEN. BAINA NIRE BIZITZAKO LEGEA DA SAIATZEA ETA SAIATZEA. ETA ONDO PASATZEA!







Euskal Herriko DOWN Sindrome Fundazioa eta beste adimen urritasunak 25 urte Mugarik gabe!

1990etik Euskadin lan egiten duen diru-irabazi asmorik gabeko fundazio bat da.



Adimen-urritasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea da beren xedea.



Programa berritzaileak (banakakoak eta taldekoak) garatzen dituzte, eta programa horiei esker, alde batetik, gizarteratzea eta gizartean parte hartzea errazten duten trebetasunak eskuratzen dituzten pertsona erabiltzaileek, eta bestetik, familiei helburu hori lortzeko tresnak ematen zaizkie.



Begoñako birjiña kalea, 12-14 atzekaldea, Bilbo
diceccion@downpv.org
946 611 222 / 944 790 284